

# Ezpalak

JON TORNER

## Jesus Angulo

Jose Luis Rebordinos eta Antonio Santamariak *Breve historia del cortometraje vasco* liburua kaleratu dute, Euskadiko Filmategiaren eskutik. 1923tik gaur egun arte Euskal Herrian ekoiztutako film laburren historia jaso du liburua. 1.006 izenburu bildu dituzte, tartean, Urbizu, De la Iglesia, Medem eta azken aldian gehiago entzuten diren Vigalondo, Cobeaga eta Almandozenak.

## Josune Amunarriz

hondarriarraren *Pinturatik instalaziora* erakusketa zabaldu dute Donostiako Kubo aretoan. Tamaina handiko margolan abstraktuak eta instalazioak aurkituko ditu bisitariak bertan. Erakusketa apirilaren 22a arte egongo da zabalik.



## Gabriel Aresti

idazle bilbotarrak (1933-1975) *Egan* literatur aldizkarian idatzi zituen sei ipuinak berrargitaratu ditu lkeder argitaletxeak, *Gabriel Aresti-Ipuinak* izenburupean. Xabier Monasteriok moldatu ditu euskara batura sei narrazioak.

## Jorge Oteiza

eskultoreak 1959-1963 urteetan idatzitako *Quousque tandem...!* liburuaren edizio kritikoa plazaratu du Oteiza Museoaren Fundazioak. Liburuak hainbat berrargitalpen izan ditu 1963an argitaratu zenetik. Orain, estreinakoz, euskarazko bertsioa ere kaleratu dute. Amador Vega arduratu da Oteizaren liburuaren edizio kritikoaz eta Pello Zabaletak egin du itzulpena. *Quousque tandem...!* liburuan arteaz, estetikatik, antropologiaz eta erlijioaz idatzi zuen Oteizak.

## Gero arte: San Telmo berria ezagutarazteko erakusketa

DONOSTIAKO SAN TELMO MUSEOA eraberritu eta handitzeko lanak hasi dira jada. Dagoeneko museo zaharrean zeuden material gehienak eraman dituzte Alde Zaharreko Santa Teresa komentura, baina ez guztiak. Horietako batzuk San Telmon utzi dituzte, bertan antolatu duten *Gero Arte* erakusketaren osagarri gisa. Bertan, behin betiko erakusketako objektuekin batera, proiektu berriak izango dituen ezaugarriak erakutsi dituzte. Besteak beste, 3.200 metro koadroko behin betiko erakusketa jasoko du museo berriak; han jarriko dituzte San Telmok bere baitan gordetzen dituen bildumak. Horretaz gain 2.000 metro koadro gehiago izango ditu aldi baterako erakusketak antolatzeko. Orotara 41.000 objektu bilduko ditu 10.600 metro koadrotan. Museoa eraberritzeko lanak 24 milioi euro kostako dira eta 2009 urterako lanak amaituta egongo direla aurreikusitako dute.

## Gayarre antzokia, beste begirada batetik

IRUÑEKO GAYARRE ANTZOKIAN *Otras miradas, otras escenas* (Beste begirada batzuk, beste eszena batzuk) jaialdia egingo da apirilaren 28tik ekainaren 2ra bitartean. Egitarauak joera berriei leku egingo die eta musika, dantza, antzerkia eta kale ikuskizuna uztartuko ditu. Heddy Maalem dantza konpainiak, adibidez, *Udaberriaren sagaratzera* ballet klasikoa eskainiko du. Frantzian jaioetako dantzari nigeriar eta senegalдарrek osatzen dute konpainia hori. Halaber, Pasion Vega eta Lila Downs kantarien emanaldiez gozatzeko aukera ere izango da.

**Iurdes  
leria**  
ileapaindegia

La Salle, 8

20140 ANDOAIN

Telf.: 943 300 360

## Kontzertu sorta ederra Bilborocken 10. urteurrenean

Bilborock-La Merced aretoaren hamargarren urteurrena izan goda apirilean. Hori dela-eta doako hogeita bat kontzertu eskainiko dituzte bertan apirilaren 12an, 13an eta 14an. Aurreneko egunean La Inconscien-



cia de Uoho, Airless-Robert Rodrigo, Macarrada, Yakuzi, Chico y Chica eta Standard taldeek joko dute; 13an Kepa Junkerak, Free Martinok, Ya te Digok, Idi Bihotzek, Parabellum-Pruro Chilek, Valhallak eta The Panik Punkers-ek; eta 14an, Rafa Rueda, Bosco el Tosco y su Puta Banda, Zea Mays, Wcd, Gris Perla, Afrika eta Aundience-Eten taldeek. Bakoitzak 15 minutuko kontzertua emango du eta guztiek eskaini beharko dute beste talde edo artistaren baten bertsioa. Hiru emanaldiak grabatu eta CDa kaleratuko du Bilborock aretoak.

Itziar Madinak Txalaparta aldizkarian: «Ase geratzea gauza korapilatsua da. Noizbait hala gelditu behar duzu, bortxaz, liburuak argia ikustea nahi baduzu behintzat. Oroz gaineratik, adierazi nahi izan dudana ulergarri den ala ez, eta beste begi eta bizi-penek nola hartuko duten pentsatze hutsak ikara ematen dit. 'Eskailera oroimena' deitzen omen dute etxera zoazela, edo eskailerak igotzen zaudela, oroitzea zer eta nola erran nahi zenuen lehen, halako lagunarekin solasean zaudela. Nahikotxo gertatzen zait, eta liburuarekin berdina gertatzeak kitzikatzen nau. Baina, hortik pasatu behar, ezta?».

Ibon Huarte dantzariak Xirikian: «Kulturaren barruan atalak bereizten baditugu –bertsolaritza, dantza, trikitixa...–, nire ustez, dantzak Euskal Herriko kulturaren barruan badu pisu garrantzitsu bat, baina kulturagintzan, gaur egun, ez dut uste asko baloratzen denik. Nahiko baztertuta bezala ikusten dut nik, hor dago. Guk gure emanaldiak egiten ditugu, baina ez gara hortik aurrera joaten».

Jon Lasa trikitixa irakasleak Karkarra aldizkarian: «Beharko dira lehiaketak, baina, nire iritziz, garrantzitsuagoa da herriko kontuetan presente izatea, parte hartzea edo zenbait ikasle bere aldetik elkartu eta taldetxo bat sortzea erromerietan eta antzekoetan aritzeko. Baditugu aurkeztuz gero lan ona egin dezaketen ikasleak, baina sekula ez ditugu horretara animatu ez baitzaigu interesatzen eskola horregatik ezagutaraztea».

Xabier Silveirak Garan: «Ezin da gertatu, gertatzen den bezala, mila pertsona final bat entzutera joan eta mila pertsona horiek aukeraturako bertsolariek urtean hamar saio bakarrik egin izana. Eskapate bat eraiki ordez, bertsolaritzak bertsolariak sortu behar ditu. Horixe da Nafarroan aldatu beharrekoa, beste herrialdeek bizi duten egoerara iritsi ahal izateko (...) Nafarroan urtean egiten diren saio gehienetan bertsolari gipuzkoarrak izaten dira. Nafarroako bertsolariak ezagutzera eman behar dira».

## Tolosako Txotxongiloaren Nazioarteko Gunea.

Aurtengo udan hasiko dira Tolosako Txotxongiloaren Nazioarteko Gunea eraikitzen eta aurreikuspenak betetzen badira, 2009ko udan zabalduko dute. Proiektuak sei milioi euroko aurrekontua izango du eta bost instituzioi babestu dute: Tolosako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Espainiako Sustapen Ministerioak eta Kutxak. Txotxongiloaren Gunea Tolosako Euskal Herria plazako eraikin nagusian kokatuko da. Lau solairu izango ditu eta besteak beste, 250 lagunentzako lekua izango duen areto eszenikoa, entseguen gela, erakusketa aretoa, dokumentazio zentroa eta artistentzako eta ikerlarietarako bizilekua eraikiko dituzte bertan.

## Literatur Sorkuntzako Lazarillo Sariak.



Haur eta Gazte Liburuen Espainiako Erakundeak (OEPLI) Lazarillo Sarietarako deialdia egin du. Hamabi urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako

literatur lanak onartuko dira, gazteleraz, katalanez, galegoz eta euskaraz idatziak. Edozein generoko lanak –narratiba, poesia eta antzerkia– aurkez daitezke eta irabazleak 3.000 euro jasoko ditu. Testuak maiatzaren 30a baino lehen bidali behar dira. Bigarren sari bat ere banatuko da: Album Ilustratuko Saria. Orain arte Ilustrazio Saria izena zeukan eta bertan parte hartzeko, album baten proiektuaren maketa aurkeztu beharko da. Informazio gehiago: [www.oepli.org](http://www.oepli.org).